ASTEKARIA - 2009ko maiatzaren 1ean - XIII. urtea - Usurbil, 364. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua!!



Igandean, Andatza Eguna



## Onenen artean amaituko du denboraldia

# Usurbilgo judo taldeak







# Erraustegian sortuko diren sustantziek ze ondorio dakartzate?

GASAK

·PARTIKULAK.......Arnas eta begietako arazoak
·CO.......Negutegi efektua eta mundu mailako beroketa
·$SO_2$ (Sufre oxidoa)....... Euri azidoa, inguruetan korrosio efektua
·HCl (Azido klorhidrikoa).......Lanbro kimikoak, euri azidoak eta korrosioa
·HF (Hidirgeno fluoruroa)....... Hezurduren Fluorosia, begi eta azaleko sumindura
·$NO_2$.......Euri azidoak, hiri lanbroak, begietako sumindura
·METAL ASTUNAK
  ·Kadmio eta deribatuak .......Inmunologi eta nerbio-sisteman kalteak
  ·Merkurio eta deribatuak....... Burmuin, giltzurrun eta fetuan kalte iraunkorrak
·Dioxinak.......Osasunaren Mundu Erakundeak kantzerigeno hartua
·Furanoak ....... Osasunaren Mundu Erakundeak kantzerigeno hartua

SOLIDOAK

·Zepak (Eskoriak)....... Alemanian gaur egun ikertzen ari dira
·Errautsak....... Toxikotzat hartuak, minbizia sortzeko ahalmena, birika arazoak, begietako kalteak...

Osasun-tekniko batzordea

ERRAUSKETARIK EZ LURRA BASERRIA HERRIA BIZIRIK

ALKARTASUNA

Usurbilgo Udala

Albistea iruditan !!

# Eduki ontzi berriak, kalean

Urte luzez edozein kale bazterretan aurki genitzakeen zabor ontziak duela aste batzuk desagertu egin ziren. Jada ordea, haren ordezko berriak jarri ditu Udalak. Irudikoa kasu. Dorre itxurakoa, eduki ontzi berrietan atez ateko bilketa jendaurrean aurkezteko parte hartze prozesuan ezagun egin diren koloreak ageri dira.

Kaleetan jartzen ari diren ontziak lau zati desberdinetan zatitua daude, herritar bakoitzak hondakinak egoki bota ditzan; plastikoa batetik, organikoa bestetik… Atez ate eta kalez kale, hondakinak gaika bildu eta birziklatzeko.



IRUDIAN, ARTZABAL PARKEAN DAGOEN EDUKI ONTZI BERRIA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com
Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.
Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.
Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.
Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.
Tirada: 2.600 ale
Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

JUDO TALDEKOEKIN SOLASEAN ____ 6. OR.
ANTZERKI EGUNA, ARGAZKITAN ____ 9. OR.
IGANDEAN, ANDATZA EGUNA ____ 10. OR.
DENBORAPASAK ____ 14. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!!

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza








UNAI AGIRRE

# Lortzen ari gara eta lortuko dugu

Berriz ere esan behar, hamaikagarren aldiz, Errausketarik ez! Hamaika aldiz esan dugu ez dituguIa dioxinaz, furanoz eta metal astunez gure gorputzak bete nahi, hainbaten poltsikoak betetzeko. Euripean eta hotzez, jendearen berotasuna nabaritu genuen lehengo asteko manifestazioan. Orain, ezingo dute esan ez zekitela ezer, amiantoarekin, lindanearekin eta kutsatutako lurzoruekin egin duten bezala. Guk, ozen esan genuen lehengo larunbatean. Ezingo digute esan, zerbait egin behar dela zaborrarekin, ez dagoela beste aukera errealik. Usurbilen egin dugu. Zabortegira edo erraustegira doana gutxitzen goazen heinean, arazoa desagertzen doa.

Eta izugarria usurbildarren lana. Hilabete bakarrean, zabortegirako zena, bi herenetan gutxitu da, hori da errealitatea. Gipuzkoa osora datuak orokortuko bagenitu, erraustegiak sortuko litzatekeen zaborra 3 edo 4 aldiz beharko lituzke, eta zaborra behar duen industria izanda, bideragarri ezina izango litzateke. Badakigu, orain, norantz jo behar dugun.

Baina gure osasun, ingurugiro, aireak, eta abar luze batek ez du ezer balio, haien interesen aurkakoak baldin badira. Errausketaren alde agertzen direnei mozorroa aspaldi erori zaie aspaldi. Nola defendatuko dute erraustegia? Orain, errausketaren aurkako koordinadorak 30.000 sinadurarekin esan nahi die errausketarik ez dugula nahi, beste zabor kudeaketa bat posible dela eta Euskal Autonomi Erkidego osorako legea nahi dugula. Milaka ahots entzun beharko dituzte benetako zabor kudeaketa baten alde, osasungarriagoa, ingurugiroa gehiago errespetatuko duena, lehengaiak alferrik bota edo erreko ez dituena. Errausketaren alde daudenen aitzakia eta argudioak haien suak erre zituen aspaldi.

Orain da garaia, partiduen gainetik marko autonomikoaren zabor kudeaketan eredu izan gaitezen, guregatik, gure seme alabengatik. Orain inoiz baino argiago dago ez dugula nahi, ez dela behar. Lortzen ari gara, eta lortuko dugu!

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - **Unai Agirre** - Idoia Torregarai

**Ika-mika !!**

# Maiatzak 1: langileon borrokaz, Euskal Herriak aldaketa

Aurtengo Maiatzaren Lehenengoa abagune ekonomiko oso berezian heldu da: langileok sortu ez dugun mundu mailako krisi ekonomikoan murgilduta gaude eta, gainera, botere ekonomikoak krisi hori langileok ordaindu dezagun nahi du.

LAB sindikatuak testuinguru honetan sindikalismo erasokorra are premiazkoagoa dela argi dauka. Euskal langileriak ezin ditu patronalaren txantajeak onartu, azken urteetan patronalak bere patrikak ederki bete dituenean. Sindikalismoaren helburua langile mugimenduan eztabaida norabide egokian kokatzea izan behar zela argi genuen, eta horretarako administrazioen jarrera baldintzatzea beharrezkoa zela, patronalarekin erabat lerrokatu ez zedin.

Maiatzaren Lehen honetan egoerak bere horretan dirau. Patronalak krisiaren pilota gure teilatuan jarri nahi du eta administrazioen erabakiek botere ekonomikoaren interesak besterik ez ditu kontuan hartzen. Horregatik LABek krisiari erantzun gogorra eman dio lantokietan zein kalean ere. Argi utzi dugu sindikalismoaren papera ezin dela krisiaren gestioa izan eta langile mugimenduari interpelazio zuzena egin diogu langile borroka klabe ofentsiboan kokatzeko helburuarekin. Hortaz, maiatzaren 21ean beste sindikatuekin batera deitu dugun greba orokorrak, LABek langile mugimenduan barneratu nahi izan dituen ildoetan inflexio puntua ekarri behar du.

Langile borroka beharrezkoa da krisi egoera honetan atzera pausorik egin ez dadin, baina argi izan behar dugu borroka honetarako baliagarria den eredu sindikal bakarra sindikalismo erasokorra dela. Ez dago beste biderik. Sindikalismoak benetan daukan borrokarako gaitasuna azalerazi behar du. Deituta daukagun greba orokorraren benetako balioa langile mugimenduan eta jende artean transmititu behar dugu. Patronalari gogor erantzun behar diogu, administrazioek krisiaren inguruan egiten ari diren kudeaketa gogorra salatu behar dugu. Baina ezin dugu eztabaida ongi kokatu gabe utzi. Krisi egoera hau ez da modu isolatuan jaio, Euskal Herrian aurrera eramaten diren politika ekonomiko eta sozialen ondorio zuzena da langileoi inongo mesederik egiten ez diguna.

Beraz, goazen erantzutera, baita aldaketa aldarrikatzera ere. Euskal Herriko langileok aldaketa politiko eta soziala beharrezkoa daukagu, eta greba orokor honek eskenatoki berri hori irekitzea ahalbideratu behar digu. Hori da gure ustez langile mugimenduaren erronka; krisiaren gainetik, aldaketa politiko eta sozialaren motorra izatea.

**Usurbilgo LAB**

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
Hurrengo alea: maiatzak 8. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 4.

# Gaikako bilketa, are gehiago hobetzeko zenbait aholku

**Duela astebete jakinarazi bezala, atez ateko bilketa martxan jarri zenetik hilabeteren buruan, gaikako bilketa %76,08koa izatera igaro da. Edozein kasutan, Udaletik jakinarazi dutenez, oraindik sistema berria hobetzeko tartea badago, zenbait ohitura txiki aldatuta.**

Portzentaje batek irudikatzen du, azken hilabetean zer modutan irauli den birziklatze-tasa. Hirukoiztu egin da zabortegira ez doan eta berrerabiliko den gai kopurua, edota alderantziz interpretatu nahi bada, birzikla ezin litekeen gai kopurua hiru aldiz murriztu da. Bestelako informazioaren gainetik, ehuneko bat bihurtu da azken aste honetako protagonista nagusian; %76,08, atez ateko bilketaren emaitza zenbakia.

### Kontuan hartzeko aholkuak

Oraindik ordea, egindakoa hobetu liteke. Egunerokotasunean, zenbait ohitura txiki aldatuz gero, aipatu portzentajea igoerako bidean jar liteke. Horretarako atez ateko bilketa sistemaren aldeko eragileek zenbait xehetasun kontuan hartzea aholkatzen dute.

### Ontzi arinak, plastikozko poltsan

Egunez egun, hondakin zati desberdin bat atera behar da etxe atarira. Gaia eta estalkia material berekoak izatea komenigarria da. Adibidez, ontzi arinak plastikozko poltsan atera behar dira.


ONTZI ARINAK PLASTIKOZKO POLTSAN ATERA BEHAR DIRA.

### Papera, egunkarian bilduta edo kartoizko kaxa batean

Papera eta kartoia aldiz, egunkari paperean bilduta, edota kartoizko kaxa batean. Plastiko barruan ez.

Ontzi arinak etxean trinkotzen badira hobe edo bestela, tapoiak kenduta sartu plastikozko poltsan, tapoiekin dauden ontziak trinkotzea asko zailtzen baitzaie udal langileei.

### Kubo azpikaldean, sukaldeko papera eta ez plastikoa

Hirugarren gomendioa, organikoari lotutakoa da. Norberak duen ontzi marroiaren azpialdean konpostatzeko modukoa den sukaldeko papera jar dezake, ez ordea plastikozko poltsarik ezta egunkari orriren bat ere. Hizkien tinta metal pisutsu gisa definitua dago eta inpropiotzat jotzen baita.

Parte hartze prozesua abian jarri zenetik, Udalak zabalik mantentzen du Sutegiko informazio bulegoa, astelehenetik ostiralera: 10:00-13:30 / 16:00-20:00.

Telefonoz, 900 776 776.

E-posta, atezate@usurbil.net

## Telefono mobilak, ordenagailuak... Pikaolara

Inausketak, tamaina handiko etxe tresnak eta bizilekuetan burututako obretako hondakinak duela aste batzuetatik hona Kalezarreko Pikaola eremuan utz litezke. Aipatu materialekin batera, aurrerantzean teknologia berritzat jo eta erabiltezin geratu diren ordenagailu edota telefono mugikorrak ere bertara eraman litezke. Pikaola, Kalezarren kokatua dago, Eguneko Zentrotik Harane futbol zelairako bidean gora abiatu eta ezkerretara, garai bateko haur eskola ondoan hain zuzen. Honako ordutegian zabalik aurki daiteke gunea: astelehenetik ostiralera, 12:00-14:00 artean, larunbatetan 10:00-14:00 artean. Bertara sartzeko ez da txartelik behar.

## Arropa ontzia, kiroldegi parean

Beti izan ohi da armairuan gehiago erabiliko ez den arropa. Egun, txukunketa lanekin hastean, zaborretara bota beharrik ez dago. Badago alternatibarik; besteak beste, birziklatzea. Oiardo kiroldegiko sarrera ondoan dago arropa biltzeko ontzia. Udaletik gogorarazi dutenez, zulatutako arropa ere eraman liteke lotsarik gabe, berdin birziklatuko baita.











# Judo taldea, sasoi betean

**Azken txanpan murgildu eta egindako lanaren emaitza onak jasotzear dira. Usurbil judo taldeko kideak lehen postuetan sailkatzeko borrokaldiak prestatzen ari dira. Ekainean emaitzak ospatzeko moduan izango dira, ohi denez, txapelketetatik beti dominaren batekin itzultzen dira eta. Andoni Aizpuruak eta Aitzol Arrospidek aipatu moduan, hori baita klubaren indar gunea; talde gisa duten lehiakortasuna.**



ONENEN ARTEAN DAUDE; MAILA GUZTIETAN LEHIAKOR AZALDU DIRA.

**NOAUA! Denboraldiko ze unetan zaudete?**

**Andoni Aizpurua.** Indibidualki denboraldia gutxi asko, ia bukatuta. Espainiako txapelketarekin bukatzen da geuretzat kirol urtea, eta orain, azken txanpan gaude. Datorren jardunaldian guztia jokatzen dugu; lehen, bigarren edo hirugarren postua.

**Aitzol Arrospide.** Ligan, denboraldi amaieran gaude. Ekaina hasieran bukatuko genuke.

**NESKAK ERE, BIKAIN**

"Espainiako Txapelketan, Nerea Sanz eta Nerea Arruti bigarren geratu dira"

**N. Azken txanpa honetan nola ikusten duzue zuen burua?**

**Aitzol.** Aurten oso ondo. Lau maila daude, gu hirugarrenean hasi ginen. Lehen urtean, bigarrenera igo ginen, hurrengoan lehenengora, jarraian Ohorezko Ligara. Egun, mailarik altuenean gaude. Iaz seigarren postuan geratu ginen eta nahiko gustura. Eta aurten, lehen jardunaldian lehen postuan sailkatu ginen, geroztik bigarren jarraitzen dugu. Azken jardunaldian gauzak ondo egiten baditugu, lehen hiru postuetako batean sailkatu gaitezke. Espainia mailako talde guztiak hor daude. Onenen artean gaude, eta lehen postuetan.

**Andoni.** Espainiako hamabi talde onenetan gaude. Hiru onenen artean egotea oso garrantzitsua da.

**N. Emaitzei begira badirudi, txapelketatik inoiz ez zaretela esku hutsik etxeratzen?**

**Andoni.** Normalean baten batek zerbait egiten du.

**N. Azken aldian, nesken taldeak, ezta?**

**Aitzol.** Duela bi aste, 23 urtez azpiko mailako Espainiako txapelketa jokatu zen. Bi neska bigarren geratu dira; Nerea Sanz eta Nerea Arruti. Adin tarte guztietan, junior, 23 urtez azpiko eta senior mailetan, beti jendea dago zerbait ateratzeko. Oihana Blanco Georgian egon berri da, Tiblisin, Europako Txapelketa jokatzen (bosgarren postua lortu zuen Tiblisin Oihana Blancok).

**N. Borrokaldietan, arbitroaren lana ere askotan ezbaian jarri izan da. Judoan beste kirol modalitateetan baino gehiago agian?**

**Aitzol.** Leku guztietan bezala arbitrolanak bere gorabeherak ditu. Judoan nik uste okerragoa dela. Futbol partida batean adibidez, arbitro batek zerbait egin dezake, baina azken emaitzan ezin du

## Lehiakortasun handiko taldea

**NOAUA! Zuentzat aurkaririk ez dagoela dirudi?**

**Aitzol Arrospide.** Aurkariak badaude, eta gogorrak gainera. Baina beti batek ez bada besteak, beti norbaitek emaitza onen bat lortzen du. Mutiletan behintzat pisu guztietan norbait dugu. Inor ez da izar bat, baina inor ez da atzean geratzen. Ez dago beti irabaziko duen bat, baina beti baten batek muturra sartzea lortzen du. Ligako taldean ere, hori da gure indar gunea.

**Andoni Aizpurua.** Taldean, denok irabazi edo denok gal dezakegu.

**Aitzol.** Talde asko daude, izar bat edo bi dituztenak, Espainiako txapeldunak direnak adibidez. Baina guk halakorik ez dugu. Pisu guztietan lehiakortasun handia dugu.

**N. Pisuaren arabera aurkari falta izan ohi duzue?**

**Aitzol.** Pisu handikoa izanda, leku askotan ez dago lehiatzeko inor. Horrek ere asko baldintzatzen du. Hemen aukera handia dago eta horrek askorako ematen du.

hainbeste eragin. Judokoa aldiz, bost minutuko borrokaldia izaten da eta arbitroaren errore batek borrokaldia galtzera eraman zaitzake.

**N. Esan liteke, beste kirol jardueretan baino subjektiboagoa dela arbitroen lana judoan?**

**Aitzol.** Nik uste baietz. Ulertzen dut zailagoa dela. Ez da berdina. Kontua da, batzuetan guk ez dakigula hanka noiz sartzen duen nahita, eta noiz ez. Adibidez, orain kasu bat izan dugu, web orrian datorren bideoa. Finala zen. Bat gure klubeko neska eta bestea Valentziako neska bat. Valentziako neska horren maisua Espainiako selekzioko delegatua da, zeresan eta eragin handia duena. Borrokatzen ari zirela, delegatua toki estrategiko batean jarri zen. Borrokaldian zehar arbitrajea gaizki burutu zen. Hamar segundo falta zirela, berdintzera zihoazen. Bideoan ikusten da, nola berak keinu bat egiten dion arbitroari modu disimulatuan. Eta arbitroak hamar segundoren faltan kasu egiten dio. Gure klubeko neskak galdu zuen borrokaldia. Kasu horretan, arbitro horrek eraman zuen gure klubeko neska Espainiako txapeldun izatetik, bigarren izatera. Arbitroaren erabaki batek eragin-da. Neska honek txapelketara joateko goiz eta arratsaldeak entrenatzen pasa ditu. Oso injustua da.

**N. Judoa zenbateraino dago sustraitua gure ingurunean?**

**Aitzol.** Beti berdin jarraitzen du. Behin ere ez da izan kirol izarra. Hor dago.

**Andoni.** Txikitatik judo oso kirol osatua da, psikomotrizitate aldetik…



IKUSGARRIAK DIRA JUDO BORROKAK, BAINA KIROLTASUNA NAGUSI DA.

# "Esteban Arrillagak, maisu bezala, asko balio du"

**NOAUA! Ez da gaurko kontua, Usurbilgo judo taldeak herritik kanpo duen erreferentzialtasuna. Zer dela eta?**

**Aitzol.** Nik uste, Estebanek maisu bezala asko balio duelako.

**Andoni.** Bere inplikazio maila, bere izateko modua. Ez da bera bakarrik inplikatzen dena, zu inplikatu eta motibatzen zaitu.

**Aitzol.** Giltzarri garrantzitsuena bera da, eta gero, hemen sortu den taldea. Azkenean, kanpoko herrietako jendea etorri da. Kide berri batek etortzea erabakitzen duenean, hemen ikusten du zer entrenatzaile eta talde dagoen, eta horrek asko erakartzen du. Niri egokitu zait, lanagatik kanpora joatea. Han klub batera entrenatzera joan eta hemen entrenatu dezakezun bezala leku gutxitan entrena zaitezke, ez dago jenderik. Gazteak edo zaharrak, edo pisu handi edo txikikoak aurki ditzakezu. Hemen aldiz, denetik dago; batzuk lehiarako prestatzen, besteak zaletu gisa.

**N. Zuek ere txikitatik zabiltzate. 23 urtez judoan, inoiz erretiroan pentsatu al duzue?**

**Andoni.** Boladak izaten dira, lanagatik ez zara iristen…Baina azkenean beti inplikatzen gara, beti aurrera segitzen dugu. Ezin dugu utzi.

**Aitzol.** Urte batzuetan gogo gehiagorekin, beste urte batzuetan gogo gutxiagorekin.

**N. Usurbilgo judo klubaren hurrengo hitzorduak zeintzuk dira?**

**Aitzol.** Frantzia iparraldera doaz klubeko batzuk, hango txapelketa garrantzitsu batera. Beste batzuk Gasteizen jokatuko denera. Mutilen bigarren talde bat osatu da, aurten hirugarren mailan hasi direnak. Bigarren mailara igotzeko kanporaketa saioetarako sailkatu dira. Bigarren taldea dugu atzetik gora igotzeko asmoz dagoena. Nesken taldea ere bigarren doa, punta puntan.

**N. Kanpora joateko aukera ugari ematen ditu judoak?**

**Andoni**. Giro desberdina ezagutzeko.

**Aitzol.** Judoaren aitzakiarekin bidaiatu dugu bai gustura. Alde onetako bat da. Hemen judoan jende gehiago arituko balitz, nahiko gerra izango genuen. Hemen ez dugunez, kanpora joan beharra dugu horren bila.




## Taldearen ibilbidea, sarean ikusgai

Txapelketetako emaitzak, klubak hedabideetan duen oihartzuna, argazki eta bideoak… Hori guztia eta gehiago biltzen du www.jcusurbil.com web orriak, Usurbilgo judo taldeak Interneten duela pare bat urtetik duen atariak. Klubeko kideek bereziki Ibai Peñak egindako lana eskertu nahi dute.

Era berean, komunikabide desberdinek judo taldeak burutzen duen lanarekiko geroz eta interes handiagoa dutela adierazten dute. "Prentsa kontuan hartzen ari da gure lana", adierazi du Arrospidek. Kirolgi Fundaziotik jasotako laguntza ere eskertu nahi dute, euren bidaietarako ezinbestekoa dena.

# Errausketaren aurrean, atez ateko bilketa

**Atez ateko bilketa sistema hizpide izan zen pasa den larunbatean Donostian elkartu ziren herritarren artean. Errausketaren aurrean, zaborra kudeatzeko era hobeak badaudela aldarrikatu zuten ehunka lagunek Donostian egin zen manifestazioan.**



"ZUBIETA BIZIRIK" LEMAPEAN BATU ZIREN MANIFESTAZIORA ZUBIETARRAK.

Errausketaren aurka eta alternatiben aldeko oihuak nagusitu ziren Donostiako manifestaziora batutako lagunen artean. Traktore batek ireki zuen bidea, "Baserria bizirik" lema agerian zuela. Atzetik, "Zubieta Bizirik" zioen pankarta nabarmendu zen.

### 20.000 sinadura

Errausketa baztertu eta hiri hondakinentzat bestelako kudeaketa eskatu zuten manifestariek. Zaborren %28 birziklatzetik, %76 birziklatzera igaro da Usurbilgo herria, atez ateko bilketa martxan jarri eta lehen hilabetean. Koordinakundeko kide da Unai Agirre zubietarra eta manifestazio amaieran esan zuenez, "egiaztatu egin du atez ateko ereduak ematen duela era guztietako materien berreskurapena nabarmen igotzeko aukera".

Hondakinen Legea sustatzen ari dira talde ekologistak, sindikatuak eta Errausketaren aurkako plataforma. 20.000 bildu dituzte eta beste 10.000 bildu nahi dituzte egunotan.

## Muna Lurra berrurbanizatzeko obren esleipena onartu du Udalak

Apirilaren 23an burutu zen ezohiko eta premiazko osoko bilkuran, udalbatzak gehiengo osoz Muna Lurra berrurbanizatzeko obrak behin behingoz ORSA S.L. enpresari esleitzea erabaki zuen. Proposamenaren alde bozkatu zuten gobernu taldearekin batera, Aralar, PSE-EE eta EAJ-PNVko zinegotziek. Abstentziora jo zuten aldiz, EAko hiru udal ordezkariek.

Enplegua eta oro har, ekonomia suspertzeko sortu zen estatu fondo berezi batetik Udalak biztanle kopuruaren arabera jasotako laguntza, Muna Lurra eremua berritzera bideratzea erabaki zen. Lanek lau hilabete irautea aurreikusten da. Proiektua gauzatzeko, hamazazpi langabetu kontratatzera konprometitzen da enpresa esleipenduna.

## Maiatzaren 6an, Kultura Aholku Batzordearen bilera

Maiatzaren 6an asteazkena, Kultura Aholku Batzordea bilduko da udalbatza pleno aretoan. Bilera arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

### Felix Aizpurua lehiaketa

Felix Aizpurua Literatura Lehiaketan parte hartzeko epea aste honetan amaitu da. 8 eta 16 urte bitarteko gazteei, prosan zein olerkian, zuzendutako lehiaketa. Sari banaketa ekaina hasieran egin nahi da.

Ford
Usurbil
Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala
Zumartegi Poligonoa,
Aitzezarra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92
943 36 10 79

KALITATEKO EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO
Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42
ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak

# Antzezleak kaleen jabe egin ziren

Giro euritsua nagusitu zen apirilaren 25ean, baina herritarrek egun goibel hari aurre egiteko botikarik egokiena aurkitu zuten; II. Kale Antzerki Eguna. Eguerditik hasita hamabi ordutik gora, arte eszenikoak Kaxkoko kaleez jabetu ziren. Mimoak, ikuskizun ibiltariak, moto klasikoen erakusketa… Adin tarte eta zaletu guztiei zuzendua. Txerrikikoek ere emanaldi sorta eskaini zuten. Eguna amaitzeko suzko danbor joleen ikuskizun paregabeaz gozatu ahal izan zen. Datorren urtean gehiago.











# Bertsolariek eta trikitilariek alaituko dute Andatza Eguna

**Maiatzeko lehen igandean ospatu ohi da Andatza Eguna. Esan beharrik ere ez da. Mendizaleek, behintzat, ondo dakite. Azken urteotan, ordea, zizurkildarrak ere bat egin dute antolaketa lanetan.**

Erromeria giroan, egun eder bat igarotzeko aukera izango da igande honetan Andatzan. Iritsi orduko, hamaiketakoa zain izango dugu: salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria. 12:00etan, herri kirolak eta jokoak hasiko dira eta 14:00etan bazkaria (norberak berea eramanda). Kafea eta kopa, ordea, antolatzaileek banatuko dute. Horretan arituko dira Zizurkilgo Ziotza Elkartea eta Andatza taldea.



DUELA BI URTE, BEÑAT GAZTELUMENDI BERTSOLARIAK ETA HERRIKO TRIKITILARIEK ALAITU ZUTEN ANDATZA EGUNEKO ERROMERIA.



# Datorren astean Zumartegin, txirrindulari gazteen erlojupeko lasterketa

**Zumartegi industria-gunea txirrindulari gazteen lehia tokian bihurtuko da berriz ere. Buruntzazpi Txirrindulari Eskolaren ekimenez, Gipuzkoako erlojupeko lasterketa ospatuko da datorren astean, maiatzak 9, arratsaldeko 16:00etik aurrera. Taldeka lehiatuko dira.**

Aurten abian jarri den Buruntzazpi Txirrindulari Eskolako kideak ere bertan izango dira. Maiatzaren 9ko hitzordua igaro ondoren, eta udako oporraldia gertu dela aintzakotzat hartuta, eskolako arduradunek Usurbil eta Lasarte-Oriako kirolariak bildu nahi dituzte, ikasturte amaiera elkarrekin ospatzeko.



AURTEN OSATU DA BURUNTZAZPI ESKOLA. MAIATZAREN 9AN GIPUZKOAKO TXAPELKETAN ARITUKO DIRA, ZUMARTEGI INDUSTRIALDEAN.



# Antzerkia, musika eta poesia Jexux Artzeren omenezko hamabostaldian

**Maiatza hilabete emankorra izan ohi da. Kultur ekitaldietan, zer esanik ez. Bereziki, Jexux Artze Kultur Elkarteak urtero garai honetan antolatzen duelako hamabostaldi modukoa.**

"Ez Dok Amairu" taldeko kideen lana gogora ekartzen lan handia egin du Jexux Artze taldeak eta, hain zuzen, talde historiko horretako kide bat hurbilduko da aurtengo edizioan ere; Xabier Lete musikaria eta idazlea. Kritika Saria jaso berri du "Egunsentiaren esku izoztuak" poesia liburuari esker eta lan horretan oinarrituko da Xabier Letek Sutegin eskainiko duen irakurketa.



OREKA TX TALDEAK "NOMADAK TX" IKUSKIZUNA ESKAINIKO DU MAIATZAREN 9AN OIARDO KIROLDEGIAN.

### Harreguy eta Laboa, gogoan

Oreka Tx-en ikuskizunean "Ez Dok Amairu" taldeko bi kide izango dituzte gogoan. Txalapartarien saioa, hain zuzen, Mikel Laboari eskainitako kantuarekin bukatuko da.

Saio amaieran, antolatzaileek Mikel Laboaren alargunari oroigarri bat emango diote.

"Ez Dok Amairu" taldeko kide izan zen Jean Paul Harreguy usurbildarra. Iaz zendu zen eta bere lana ere goraipatu asmoz, antolatzaileek beste oroigarri bat emango diote Harreguyren alargunari.

## Xabier Leteren errezitaldia

### MAIATZAK 8 OSTIRALA

**"110. Street-eko geltokia" antzezlana, Goaz antzerki taldearen eskutik.**

Izen bereko Iñaki Zabaleta Urkiolaren nobelatik moldatua.

22:00etan Sutegin. Sarrerak Lizardin, 5 euro aldez aurretik; 6 euro egun berean.

### MAIATZAK 9 LARUNBATA

**Euskal Kantu Taldea kantari.**

Urte honetan sortu den talde hau gogoz ari da euskal kantak abesteko eta tarte alaiak pasatzeko biltzen.

18:00etatik 20:30era kalez kale.

### MAIATZAK 9 LARUNBATA

**"Nömadak TX zuzenean", Oreka Tx taldearen ikuskizuna.** 22:30ean Oiardo kiroldegian. Sarrerak Lizardin, 10 euro aldez aurretik; 12 euro egun berean.

### MAIATZAK 15 OSTIRALA

**"Egunsentiaren esku izoztuak" poema irakurketa.** Xabier Leteren azken liburuko poemen irakurketa Joxan Goikoetxea musikariak lagunduta.

20:00etan Sutegin. Sarrerak Lizardin doan jaso daitezke, gehienez bi sarrera pertsonako.



## Oreka Tx ikustera joateko, bi sarrera ditugu zozketatzeko

Oreka Tx taldearen ikuskizunerako bi sarrera ditugu, NOAUA! astekariko zein www.noaua.com webguneko irakurleen artean zozketatzeko.

Galdera honen erantzuna asmatzen dutenen artean egingo dugu zozketa eta, irabazleak, bi sarrera eskuratuko ditu. **Hau da galdera: Nork zuzendu zuen Nömadak Tx dokumentala?**

Erantzun egokia NOAUA!ko bulegora ekarri edo e-postaz bidali elkartea@noaua.com helbidera.

Zozketa maiatzaren 8an egingo dugu, goizez, eta www.noaua.com helbidean emango dugu aditzera irabazlearen izena.

# Uda honetan ere, Udajolas udaleku irekia

## Uztailean egingo da baina begiraleek orain dute izena emateko epea

**Iazko arrakasta ikusita, NOAUA! Kultur Elkarteak bigarrenez antolatuko ditu udaleku irekiak. Uztailean egingo dira, 6an hasi 30era bitartean. Izen-ematea maiatza bukaeran zabalduko da. Orain, begiraleak aukeratzeko garaia da. Begiraleak ez ezik, zuzendaria ere behar da. Dagoeneko hasi dira begirale batzuk izena ematen.**

Begirale zein zuzendari lanetan aritzeko, begirale edota zuzendari titulua izatea (edo titulazioa ikasten aritzea), EGA titulua eta usurbildarra izatea hobetsiko dira. Lan poltsan izena emateko asmoa dutenek, e-posta idatzi behar dute helbide elektroniko honetara: elkartea@noaua.com. Edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Dagoeneko, hainbatek eman dute izena.



Begiraleak eta zuzendaria behar dira Udajolas martxan jartzeko. Gaztetxoak apuntatzeko epea, ordea, maiatza bukaeran hasiko da.

### Izen-ematea, maiatza bukaeran

Begiraleak eta zuzendaria aukeratzeko garaia da honakoa. Umeen edo gaztetxoen izen-ematea, ordea, maiatza bukaeran hasiko da. 4 eta 12 urte arteko gazteei zuzenduta dago Udajolas. Gehienez, 95 haurrentzako lekua egongo da udaleku irekian.

Maiatzaren bukaeran hasiko da izen-ematea baina udalekua uztailaren 6an hasi eta 30ean amaituko da.

Udaleku ireki hau goizez bakarrik egongo da martxan, 9:30etik 13:30era.

## Usurbil Cup txapelketa, kolokan

Usurbil Cup txapelketa antolatzen zuen lan taldea errelebo eske ari da. Euren laguntza emateko prest azaldu dira, gurasoei edo interesatuta daudenei. Eurekin harremanetan jartzeko:

zubiharitzo@hotmail.com
josuaranberri226@hotmail.com
65372 80 59 (Haritz)

## Maiatzaren 9an eta 16an, ate irekien egunak Lanbide Eskolan

Usurbilgo Lanbide Eskolak ate irekien jardunaldiak prestatu ditu. Maiatzaren 9an edota 16an, bi egunetan irekiko dira ateak interesatuta dauden ikasle eta gurasoentzat.

Eskolaren instalazioak erakutsiko dituzte jardunaldi horietan. Argibideren bat nahi izatekotan deitu 943 36 46 00 telefono zenbakira.



www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97



| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Lixiba<br>Horoskopoak | | Erraz hiltzen da<br>Irrika | | Gerra ontzia<br>Arrainen galbide | | Asturuak, zoriak<br>Pl., diru zaharra | | Pluralean, suari dariona |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | *Kalezarren beste izena<br>Musika nota | | | | | | | | |
| Zutik, tente<br>Metal mota | | Maskurrak eratua<br>Biderako jateko | | | | | | | | | |
| | | | | | | | Barazki hostotsuak<br>Erriberagoitiko auzoa | | | | |
| Titanioa<br>Kirol mota | | | Endak<br>Hegazti mota | | | | | | | | Lokarri sendoa |
| | | | | Ez emeak<br>Zoro | | | | | | Sufrea<br>Presio unitate | |
| Nekadura<br>Ahari zikiratua | | | | | Ardi, hitz elkarketan<br>Zintzo | | | | Interjekzioa<br>Kontso. bikoitza | | |
| | | | | | | Haiek berak<br>Boroa | | | | | |
| Kolonbokoa | | | | | | | | | | | |

* **Kalezar** beste izen batekin ere ezaguna da.

**Soluzioa:** 17. orrialdean.

# Txerriki Taldea Azkoitian arituko da igande honetan

Kale Antzerki Eguneko ajea gainditu berritan, Azkoitiko Matadaixen arituko dira Txerriki taldekoak. Igande honetan izango da, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, eta "Etxe Berri de Luxe" lana eskainiko dute bertan.

Aitzakia honekin, egun pasa modukoa egingo dute. Autobusez, goizeko 10:30ean aterako dira eta 21:00tarako bueltan izango dira. "12:00etatik 14:00etara Azkoitian oinez paseo turistikoa egingo dugu bertako lagun batek gidatuta. Parte hartzea irekia da. Autobuserako izen ematea Txiribogan: 3 euro (bertan ordaindu). Tokia plazak bete arte".

Txerriki Gazte Koadrilakoak, ordea, ostiral honetan Zarautzeko gaztetxean arituko dira, 22:30etik aurrera. Eta maiatzaren 6an asteazkena, Donostiako Lugaritzen, 20:00etatik aurrera, XXI. Gazte Antzerki Topaketetan.





# Espainiako Txapelketako azken faserako sailkatu da eskubaloi taldea

**Nerea Agudoren neskak denboraldi bikaina osatzen ari dira. Asteburuan, Espainiako Txapelketako azken fasea jokatzeko txartela eskuratu zuten.**



MAIATZAREN 6TIK 10ERA JOKATUKO DA ESPAINIAKO TXAPELKETAKO AZKEN FASEA. ZARAUTZEN JOKATUKO DA, FEDERAZIOAK IRAGARRI BERRI DUENEZ.

Aurreko asteburuan, Palentzian izan da Usurbil KE taldeko jubenil mailako eskubaloi taldea. Nerea Agudok zuzentzen duen taldeak, 27-25 irabazi zuen lehen partida, Rasoeiro galizarren aurka.

Bigarren partidan oreka izan zen nagusi. 20na berdindu zuten Andaluziako Dos Hermanasekin.

Hirugarren partidan, 39-33 irabazi zuten usurbildarrek Palentziaren aurka.

**Onenen artean**

Palentziako fasean, Andaluziako Dos Hermanas izan zen nagusi, *gol average* hobea lortu zuelako. Bigarren izan ziren usurbildar neskak, baina garaipen kopuru berdinarekin.

Sektoreetako zortzi talde onenen artean geratu direnez, Espainiako Txapelketaren azken fasea jokatuko dute, maiatzaren 6tik aurrera, Zarautzen. Maila gorenean dauden seinale. Zorte on azken faserako.

## Birentzat afaria Txitxardin Beltzan

Eskubaloi taldeak egin duen azken zozketan, Feliciano Martinez izan da irabazlea. Txitxardin Beltza jatetxean birentzat afaria tokatu zaio Felicianori. Usurbil KE-ko kideek eskerrak eman nahi dizkiete partehartzaile denei eta baita Txitxardin Beltzako lagunei ere.



ZENBAKI SARITUA ETA TXARTELA ESKUETAN DITU AZKEN IRABAZLEAK.

## Asteburu honetan, Herri Arteko Pilota Txapelketa jokatuko dute gure ordezkariek

Ostegun honetan, Gipuzkoako Herri Arteko Pilota Txapelketa jokatzen hasiko da Usurbilgo pilota elkartea. Apirilaren 30ean, gaueko 22:00etan, Azkoitiko Gurea Pilotalekuan jokatuko dira Azkotia eta Usurbilgo kadete, jubenil eta nagusien arteko norgehiagokak.

**Kadete mailan**
Juaristi-Zubizarreta /
Iñaki Irazusta-Imanol Zinkunegi

**Jubenil mailan**
Gorosabel-Zendoia / X. Santxo-J. Ostolaza

**Nagusi mailan**
Andreu-Epelde / E. Huizi-X. Errasti

### Santixabeletako Txapelketa

Santixabeletako Txapelketari dagokionez, nagusien partidak duela bi aste hasi ziren. Jubenilen lehiaketa, ordea, aste honetan abiatuko da.

**Maiatzak 2 larunbata, 10:30**
**JUBENILAK**
Urretabizkaia-Urteaga (Ikaztegieta) / Juanmartiñena-Ortiz Urbina (Antigua)

Lobato-Azaldegi / Mendizabal-Ostolaza
(Alde Zaharra) (Usurbil)

**NAGUSIAK**
Lizaso-Pebet / Pikabea-Huarte
(Villabona) (Bera)

**Maiatzak 3 igandea, 10:30**
**JUBENILAK**
Mujika-Irurtzun / Gesalaga-Galarraga
(Alkiza) (Usurbil)

Larrañaga-Uriarte / Mendoiro-Juanena
(Zaramaga) (Erreka)

**NAGUSIAK**
Alegria-Iriarte / Salaberria-Irureta
(Iruñea) (Elgeta)

## Agenda!!

**Apirilak 29 asteazkena**
**Santixabeletako Jai Batzordearen bilera.** 18:30ean Udaletxean.

**Maiatzak 1 ostirala**
- **Txerriki Gazte Koadrila** Zarautzen, gaztetxean. 22:30ean.

**Maiatzak 3 igandea**
- **Andatza Eguna.** Egun osoko erromeria.
- **Txerriki taldea** Azkoitiko Matadeixen, 19:00etatik aurrera.

**Maiatzak 4 astelehena**
**Hitzaldia: "1512. Independentziaren galera".** 19:00etan Sutegin. Floren Aoiz.

**Maiatzak 6 asteazkena**
**Kultura Aholku Batzordea.** 19:00etan udal aretoan.

**Maiatzak 8 ostirala**
- **Antzerkia: "110. Street-eko geltokia".** 22:00etan Sutegin. Sarrerak Lizardin, 5 euro aldez aurretik; 6 euro egun berean.

**Maiatzak 9 larunbata**
- **Kantu-jira,** 18:00-20:30 frontoitik.
- **Oreka Tx** kiroldegian, 22:30ean. Sarrerak aldez aurretik Lizardin, 10 euro.

## Soluzioa!!



| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ✪ | G | ✪ | H | ✪ | A | ✪ | P | ✪ |
| | | | Z | O | D | I | A | K | O | A | K |
| | | | ✪ | B | E | L | M | O | N | T | E |
| ✪ | Z | ✪ | M | A | S | K | U | R | T | U | A |
| R | U | B | I | D | I | O | ✪ | A | Z | A | K |
| ✪ | T | I | ✪ | A | R | R | A | Z | A | K | ✪ |
| J | U | D | O | ✪ | A | R | R | A | K | ✪ | S |
| ✪ | N | E | K | E | ✪ | A | R | T | ✪ | B | O |
| Z | I | K | I | R | O | ✪ | E | U | R | A | K |
| ✪ | K | O | L | O | N | B | O | A | R | R | A |

Soluzioa: Belmonte

# Gure Pakea Zahar Egoitzakoak Salamanca bisitatuko dute maiatzean

Salamancako Alberca herria bisitatzeko asmoa du Gure Pakea Zahar Egoitzak. 1940an eremu historiko artistiko izendatu zuten Alberca eta inguruan du Batuecas-Frantziako mendilerroa izeneko parke naturala.

### Maiatzaren 24tik 29ra

Gure Pakea Zahar Egoitzak sei eguneko oporraldia prestatu du. Maiatzaren 24tik 29ra abiatuko dira Salamanca aldera. Gauak 4 izarreko hotel batean pasako dituzte.

### Bidaia, autobusez

Prezioa, 276 euro; pertsona bakoitzeko. Autobusa, bidaia-asegurua eta mantenu osoa barne.

Izena emateko epea irekita dago oraindik. Informazio gehiago Artzabalen, 9:30etik 12:30era.



PARAJE EDERRAK DAUDE BISITATUKO DUTEN ZONALDEAN.

## Maiatzaren 1eko asteburu osoan, udal liburutegia itxita

Sutegin dagoen udal liburutegia irekita izan ohi da larunbat goizez, 10:00etatik 13:00era. Asteburu honetan, ordea, itxita izango da. Maiatzaren 1ean, jai eguna denez, itxita izango da. Baina baita maiatzaren 2an ere, larunbatarekin, itxita izango da udal liburutegia.

Udal liburutegiaren katalogoa, dena den, webgune honetan kontsulta daiteke:
www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua

## KzGunea arratsaldez irekiko da maiatzean

Maiatzean, 16:00etatik 20:00etara irekiko dira KzGuneko ateak. Hauek dira hilabete honetarako antolatu diren ikastaroak:

**Maiatza 4-15**
**Internet ikastaroa**
**+ e-administrazioa.** 16:00-18:00.

**Maiatzak 18-27**
**E-administrazioa.** 16:00-18:00

**Maiatzak 20-30**
**E-administrazioa.** 18:00-20:00







### ETXEBIZITZA

- Usurbilen, bikote batek logela (etxe berria) alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943 575 788 / 609901 734.
-Pisu bat daukat alokairuan eta pisukide baten bila nabil. Hilean 250 euro. 615 006 390.
-Santuenean etxebizitza bat daukagu salgai. 2 logela, sala, sukaldea eta komuna dauzka. 28 milioi negoziagarri. 619591849 / 626456448.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Pisua salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m2 - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m2), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Peugeot 307-SW familiarra 2003 urtekoa eta beis kolorekoa. 637894997.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
-"Yamaha especial 250" motorra salgai. Egoera onean, 700 euro. 615 006 390.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
-Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m². Oso merke. 657 700 408.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Galtzaragainan (Dia ondoan) 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.

#### Lan-eskaintzak

- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
-Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta informeak ditut. 697737459.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
-Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

-Frantseseko klaseak ematen dira Usurbilen. Maila guztietakoak. Astelehen eta asteartetan arratsaldeko 20:30ean. Maiatzaren 4an hasiko gara. Informazio gehiago Laurok Liburudendan.
-Eguzkitako betaurrekoak galdu ditut frontoi inguruan. Beltzak dira, monturarik gabeak eta Armani markakoak. 943373117
- Teckel txakurkumeak salgai, oso politak, standard tamaina, ile gogorrekoak.. Tel: 636 39 32 37
- Bordatxo ondoko errotondan, ume baten kaki koloreko txamarra bat galdu da. Barruan kartera dauka. Aurkitu duenak deitu 943364733.
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
-Katu txuri beltz bat galdu da Intxaurreta (Aginaga) inguruan. 609 928 387.
- Martxoko azken larunbatean pultsera bat galdu nuen Eguzkitzaldea auzoan. Mailaduna da eta perla urdinak edo "aguamarinak" ditu. Aurkitu baduzu udaltzainetara bueltatu.
-Urtarrilaren 29an erloju bat galdu nuen, Erreka Txiki eta Kale Nagusi inguruan. 943 371919.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
-Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



**Zorionak Arrate!** Zure 4. urtebetetzea maiatzaren 3an, muxu pila bat zure guraso eta sendi guztiaren partez!



**Zorionak Izaro!** Maiatzaren 3an, etxeko printzesak 5 urte egingo ditu. Zorionak eta muxu haundi bana, guraso, Imanol, izeba-osaba eta aitonen partez.



Hirurogei urtekin
Luis Mari daukagu
zorionik beroenak
opa dizkizugu
egun berezi honetan
jai-festa nahi dugu
Peña Pagolak ere
parte hartu nahi du
Kalezahartar guztiok
maite zaitugu

## JAIOTZAK

**Liher Iñigez Astobiza**, apirilaren 3an
**Daniel Lamas Fernandez**, apirilaren 4an
**Aitor Zabaleta Urdanpilleta**, apirilaren 12an
**Danel Rios Lebron**, apirilaren 20an



**Zorionak Nerea!** Maiatzaren 2an egiten dituzu 6 urte eta etxekoak eta aiton-amonak ez gara ahaztu. Marrubi eta txokolatezko muxuak!









# osasun gida

## Farmazia

iturralde botika
Tomas Iturralde botika
R.P.S. Nº 88/07
Maisu formulak
Dermofarmazia
Produktu Homeopatikoak
Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

## Fisioterapia

FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo
Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak
Ola kalea, 12 LASARTE-ORIA • ✆ 943 370 306

## Masajista

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
☎ 943 366 197
Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

## Optika

USURBIL
OPTIKA
Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapoiak neurrira eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan
Zubiaurrenea, 10. USURBIL • ✆ 943 370 269

## Hortz klinika

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

Gida honetan azaldu nahi baduzu: ✆ 943 360 321 • publizitatea@noaua.com







## "ASTE BUKAERAKO MENUA"

·Bakailu entsalada epela
·Arraina eta ziazerba krepak

aukeratu:
·Arkumea
·Txerrikumea
·Txekor masail
·Eguneko arraina

·Etxeko postrea
·Edaria, ogia eta kafea

30€ +bez




**MENUA**
**Eguneroko menua.**
OSTIRAL GAUA BARNE
MENUA 16€
edaria, ogia eta
kafea barne

## "IGANDERO PUZGARRIAK"

Maiatzak 1etik aurrera, igandero 15:30-20:30tara
Monitorekin







**Olarrondo Jatetxea**
5 zenbakia. USURBIL
erreserbak: ☎ 943 360 376
www.olarrondo.com